

**EUSKAL-ERRIA-REN ZUZENDARI JAUNARI,
BERE EGUNEAN.**



¿Nola zerura begira gabe
Bizi liteke gizonik?

ARZÁC.

(EUSKAL-ERRIA, tomo V.)

Gaurko eguna urte askuan
Jaunari diyot eskatzen,
Eta gañera berekin beti
Izan gaitzala arkitzen:
Orla dijoa gure izana,
Orrela dana banatzen;
Orla dijoaz gure bizitzak
Urtetik-urte bukatzen;
Orrela guaz geren katiak
Orrela guaz askatzen.
Gora begira askotan nago
Zenbait gauza nastaturik,
Munduban diran kontu guztiyak
Utzita denak azturik;
¡A!... eta gero arkitutzean
Lurrera beira jarririk
Nere barrenak erantzuten dit
Zurekin berriz esanik:
«¿Nola zerura begira gabe
Bizi liteke gizonik?»

FRANZISKO LOPEZ ALEN.

Garagar-illaren 13-an.

